



Amaia Fontag

♦ FEMINISTA, SINDIKALISTA

Legez harago, mentalitateetan eragin

ABENDUAREN 1ean 800 bat lagun bildu ginen Miarritzeko Kasino aitzinean, Baionako apezpikuak antolatutako Bizitzaren Aldeko Nazioarteko Foroari erantzuteko. Parean, pentsamolde oneko jendea genuen: Cristo Rey eta Opus Dei-ekin lotura duten taldeak: Pro-Life, bestak beste. Hots, homosexualen ezkontza eta hauek haurrak adoptatzeko eskubidea gaitzesten dituztenak. Bizitzaren izenean, morala inposatu nahi digute, alta, arras ongi badakigu haien moralak ez duela sekula bat egin norberaren askatasunarekin eta guztien errespetuarekin.

Foro hori, Parisko Legebiltzarrean urtarrilean presentatua izanen den Denentzat ezkontza lege proiektua gaitzesteko antolatua zen. Ildo berean, azken aste hauetan, Frantziako Estatuko herri frankotan molde bereko hainbat ekitaldi eta manifestaldi antolatu dira arrakasta bilduz.

Alta, lege hori ez da iraultzailea, zuzena baizik: gay eta lesbianoek ezkontzeko eskubidea eman nahi die, baita adoptatzeko ahal ofiziala ere. Hots, berdintasuna aldarrikatzen du, bertzeentzat onartua dena guztientzat bermatzea, ez gehiago ez gutiago.

Hainbat alditan gogoetan aritu naiz: ezkontza aldarrikatuz ez ote ditugu araura ekarri nahi jende guztiak, orientabide sexuala guzietakoak, gay, lesbianoak, bisexualak, heterosexuallak? Eta ezkondu nahi ez dutenak?

Miarritzeko Kasinoaren aitzinean nintzelarik gauzak oso argi nituen: ez, arazorik ez da. Denek eskubide berdinak izateak ez du erran nahi denek eginbide bera izatea. “Aukeratzeko askatasuna” da funtsezkoa.

Espainiako Estatuan, Danimarkan edo Belgikan, Europako beste herrialde batzuetan bezala, jadanik eskuratu dute ezkontzeko ahala, baita adopzioa egitekoa ere. Frantziako Estatuan zergatik ez?

Legeak babesle izan behar dira eta aitzindari, jende anitzen pentsaera baino urrats bat aitzinago. Abendu honetan aurkeztu behar duten legearen inguruan sortu diren eztabaidak eta gatazkek erakustera ematen digute homofobiak indartsu eta ozen dirauela. Trufak, zokoratzek, erasoak... beti hor ditugu.

Gure jendartea oraindik jendarte homofobia da, ez gaitzen engaina, bide luzea dugu oraindik egiteko. Iraultza mentala lortu behar dugu, eta lege batek laguntzen ahal du horretan. Urrunago joateko, guk dugu egunero obratu behar, arlo publikoan nahiz pribatuan, eskolan nahiz unibertsitatean, kirolean nahiz lantokian, karrikan nahiz etxean, mentalitateak aldatzeko.

Noiz ikusiko ditugu, gay, lesbiana, bisexual, trans... bikoteak eskuz esku karrikan? Hori izanen da niretzat, egiazko egoera normalizatuaren seinalea, jendarte zuzen eta libre batean. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Extrari jarriak



NAGORE LEGARRETA

Aitor Sarriegi

♦

Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak.

Raxoiri eman bazaio, eman, agintearen grazia erein da erein dabil han-hemen murrizketaren hazia. Gabon garaiak askorentzat du aurten zapore gazia alferrik dira eskubideak, alferrik demokrazia dekretu batek irensten badu urtetan irabazia.

“Extra” esanda uler liteken arren oparia dela berez soldata jaitsiera da, ez bedi uler bestela. Okerrena da hemen bat baino gehiago poztu direla “funtzionario alfer alenak izorratu daitezela...” besteren txarrak eurentzat ona baldin balekar bezela.

Gasteizen bada parlamentu bat Iruñetik aparte
Iparraldean hori ere ez, lau katu Paue partean.
Arrain handiak arrain txikia hartu du hortzen artean eta herririk ezin da sortu euskaldunon jendartearen erabakiak Euskal Herrian hartzen ez diren artean. ■

